



PRENTSA-OHARRA

“AISIALDIAREN AURKIKUNTZA”

Euskal Museoak aldi baterako erakusketa berria 27 ostegunean inauguratuko da. Erakusketak aisialdia izango du ardatz, XIX. mendean sortutako aisialdia, hain zuzen ere.

“Aisialdia” deritzo pertsonak lanarekin loturarik gabeko jardueretan ematen duen denborari, bere borondatez olgetarako, atsedenerako edo komunitateko gizarte-bizitzan parte hartzeko hartzen duen denborari. Dena dela, aisialdia bilakatu joan da historian zehar, eta, hala, aurreko mendeetako ez oso bestelako aisialdia dugu XXI. mendekoa, herritar guztiek eskuragarri duguna; aldaketa horretan, XIX. mendeak jarri zuen mugari nagusia.

Erakusketa honetan, aisialdiak nobleen eta kleroaren ondare eskusiboa izateari utzi, eta bizimodu burgesaren parte bihurtu zeneko unea islatuko da. Aditu askoren aburuz, XIX. mendean sortu zen aisialdia, Europako modernitatean, Europako hirigune nagusietan gertatutako industria iraultzaren bultzadarekin.

Erakusketak bi atal bereizi ditu: alde batetik, aisialdi burgesari eskainia, eta, bestetik, herri-aisialdiari eskainia.

Aisialdi burgesari dagokion atalean, kasinoak, dantza aretoak, antzokiak, kafe-etxeak eta solasaldiak, museoak eta erakusketa unibertsalak izango dira osagai nagusiak. Herri-aisialdiari buruzkoan, berriz, zezenketa, pilota, erromeriak, panoramak eta zirkua.

Kasinoak ez ziren joko-etxe soilak; izan ere, dantzak eta musikak ere bazuten tarte haitan, eta kasino batzuek jatetxea edo kafetegia ere bazuten, esaterako, Donostiako Kasino Handiak, 1887an inauguratutakoak. Antzokiek ere ospe handia hartu zuten: jakina, antzezlanek, saineteek, komediek, operez eta zarzuek gozatzeko aretoak ziren, baina burgesek jendaurreko agertoki modura ere erabiltzen dituzten, beraien buruen erakustoki modura. Herrietan, umorista talde ibiltarien emanaldiak antolatzen ziren. Kafe-etxeetan eta tertulietan orduak ematen zituzten bezeroek, egunkaria irakurtzen, bertsoak entzuten edo solasaldi literario eta politikoetan. Erakusketa unibertsalen bidez, berriz, punta-puntako aurkikuntzak eta aurrerapenak erakusten zituzten jendaurrean, eta museoak ere aisialdi burgesaren parte bihurtu ziren.

Bestalde, herri-aisialdian, indar handia zuten zezenketek, eta behin-behineko plazak benetako zezen plaza bihurtu ziren; dena dela, herri-aisialdiaren esparruan, erromeriak ziren ekitaldi nagusiak. Landa-giroan egiten ziren, oro har, eta auzo bakoitzak bere erromeria antolatzen zuen. Musika eta dantza sagardoarekin eta txakolinarekin nahasten ziren. Erromeriek Euskal Herriko aisialdiaren elementu nagusiak biltzen zituzten: musika, dantza eta taberna, baina elizaren itzalpean, betiere. Bestalde, jarduera aipagarria zen zirkua. XIX. mendean izugarritzko ospea hartu zuten zirkuek. Herriz herri ibiltzen ziren zirkuko talde ibiltariak, beren emanaldietan animaliak, animalien hezleak, pailazoak eta pertsonaia “bitxiak” erakutsiz. Eta, pertsonaia bitxiek ari garela, gurean ere izan genuen nor erakutsi: Altzoko erraldoia.

Hori guztia ikusi ahal izango da erakusketako 4 informazio kuboak osatzen dituzten 12 paneletan, Altzoko erraldoiaren neurri errealeko silueta bat ikusi ahal izango dugu, bai eta haren oinatza ere, PVCz egina, eta Eiffel dorrearen maketa bat.

Eta erakusketaren osagarri, Michael Viotteren “Les autres hommes” (2006) pasarteak proiektatuko dira. Michael Viotte frantses zinemagileak hainbat lan egin ditu askotariko generoetan, eta arlo asko landu ditu, hala nola, abentura, literatura, komikia, pintura, antzerkia eta musika.



ERAKUSKETAREN FITXA

Izenburua: Aisialdiaren aurkikuntza

Antolatzailea: Euskal Museoa. Bilbo.

Erakusketaren ekoizpena eta errealizazioa: Zumalakarregi Museoa (Gipuzkoako Foru Aldundiaren mendeko museoa da)

Tokia: Euskal Museoko Aldi Baterako Erakusketen I. Aretoa (Behe Solairua)

Datak: 2014-03-27 /2014-06-22

ERAKUSKETARI LOTURIKO JARDUERAK

30'-ko bisita gidatuak (25 €)

“Bilbao, aisialdia eta olgeta (1880/1920)” zikloa:

2014-05-08 “A quella Vieja Luna de Bilbao” dokumentalaren proiektzioa (2010)

2014-05-15 Hitzaldia: “Cafés parlantes de Bilbao: historia y anecdotario”, Carlos Bacigalupe

2014-05-22 Hitzaldia: “Circo, cine y txakolies. El ocio en Bilbao hace un siglo”, Alberto López de Echevarrieta

2014-05-29 “El Mayorazgo de Basterretxe” film mutuaren emanaldia (1928). Euskal zinemagintzaren aitzindarietako bat, Mauro Azconak zuzendua

Jardueren hizkuntza: gaztelania

Ordua: 19:30

Plaza-kopuru mugatua

2014-06-07/21 “Haur jolas tradizionalak”, familientzako tailerra. Dinamizatzailea: Keima (Gaztelaniaz eta euskaraz)

Ordutegia: 11:00etatik 13:00etara

Izena aldeztu aurretik eman behar da

Sarrera, dohainik

2014-06-12 Hitzaldia “Jolastuz Kantatuz Jolatu” Itsaso Arrieta, Labayru Ikastegia (Hizkuntza: euskaraz)

Plaza-kopuru mugatua

Erreserbak egiteko telefono zenbakia: 944.155.423

BISITARIENTZAKO INFORMAZIOA

Ordutegia: astelehen, asteazken, ostegun eta ostiraletan, 10:00etatik 19:00etara / Larunbatetan, 10:00etatik 13:30era eta 16:00etatik 19:00etara / Igandeetan, 10:00etatik 14:00etara. Astearteetan, itxita.

Sarrera orokorra: 3 €

Sarrera murriztua: 1,5 € (ikasleak)

12 urtetik beherakoentzat eta erretiratuentzat, dohainik

Tel. zk.: 944155423

www.euskal-museoa.org

museoa@euskal-museoa.org

